

Data: 2021eko maiatzaren 20a

Hasiera ordua: 17:15 Bukaera ordua: 19:20

Deituak: Seber Altube Ikastolako kooperatibistak.

Gai-zerrenda:

1. Lehendakariaren agurra.
 2. Iazko aktaren irakurketa.
 3. 2020. urteko balantzea eta galdu-irabaziak.
 4. Estatutuen egokitzapena araudi berrira.
 5. Ikastolako Pedagogia txostena.
 6. COVID-19rako balorazioa.
 7. Zuzendaritza erreleboraren prozesu aurkezpena.
 8. Komunikazio estrategiaren berri ematea.
 9. Ikasleen partehartzea eta barne-araudiaren egokitzapena.
 10. Batzordearen berritzea.
 11. Galderak eta erantzunak.
-

1. Lehendakariaren agurra

Leire Lagunilla lehendakariak bere agurrari ekin dio. Pandemiaren eraginez, ikasturte barruan egiten dugun bigarren Batzar Nagusia izanda ere, urriaren 29koa aurreko ikasturteari zegokiona zela argituz.

Batzarreko gai-zerrenda zein den adierazi ostean, aurtan egin behar den estatutuen aldaketa eta barne-araudiaren egin nahi den aldaketa dela-eta, bozkatu egin beharko dela azaldu du. Eskua altxatuz bozkatuko dela erabaki da.

Jarraian eskerrak eman dizkie familia, ikasle, irakasle, langile, begirale (jantoki, autobus eta GUZUkoak), eta baita ere lantalde desberdinetan lanean dabiltzan gurasoei, juntakide guztiei eta zuzendaritzari.

Azkenik ikastolaren izenean gertutasun osoa adierazi zaie Covid-19aren eraginez gaixorik egon edo maite duten norbait galdu duten gure komunitateko kide guztiei eta osasun arloan lanean dabiltzan profesional guztiei ere.

2. Iazko aktaren irakurketa

Maria Aranburuk 2019/2020 ikasturteko Ohiko Batzar Nagusiko aktaren laburpena irakurri du eta akta aho batez onartu da.

Laburpen bat egingo dugu eta inork ezer esateko badu azkenean egin dezala.

Gernika Lumon, 2020ko urriaren 29an, 2019/2020ko ikasturteari zegokion asanblada orokorra ospatu zen, arratsaldeko 17:15ean.

Gai-zerrenda ondorengoa izan zen:

1. Lehendakariaren agurra
2. 2018/2019ko Ohiko Batzar Nagusiko aktaren irakurketa eta onarpena
3. 2019ko balantzea eta galdu-irabaziak
4. 2019/2020ko txosten pedagogikoa
5. GUZU Proiektua
6. Webgune berria
7. Karguen berriztatzea
8. Galde-erantzunak

Laburpen modura:

1. Lehendakariaren agurraren ostean aurreko batzarraren akta irakurri zen eta ontzat eman zen.
 2. Balantze ekonomikoari dagokionez, Roberto Arteagabeitia zuzendariak egoeraren berri eman zuen. Sarrerak 3.878.137,83€-takoak izan dira. Gastuak, ordea, 3.880.903,22€-takoak. Horrela gauzak, 2019ko balantzea -2.765,39€-tan itxi zen eta positibotzat eman da zifra. Kontuak onartu dira.
 3. 2019/2020ko txosten pedagogikoaren kontu eman zen.
 - Hiart Lejarzegik HH0-3ko etapa arduradunak Adaxka proiektuaren aurtengo egoeraz hitz egin zuen. Umea erdigunean jarri diseinatu eta planteatzen da etapa osoa (HH0-LH3).
 - HH0-6 bitartean gauzatu ziren ekintza eta lan planteamendua azaldu zituen ondoren.
-
- Koldo Carbonell ikasketa-buruak Ikastolako 2 metodologia nagusien arteko uztarketa azaldu zuen: Adaxka (HH0-LH3) eta EKI (LH4-DBH4).
 - EKlri dagokionez, LH5 eta LH6 mailetan jada ezarrita dagoela adierazi zuen. LH4ko irakasleak formakuntza berezi bat jasotzen ari zirela, EHko beste irakasle batzuekin batera.
 - Digitalizazioa LH5etik DBH4ra bitartean doala azaldu zuen. Konfinamenduan hau ondo landuta izatea, materialak digitalena izatea eta abar, oso ondo etorri zitzaigula jakinarazi zuen.
 - Pandemia zela eta, Ikastolan lehen aldiz azken 40 urteetan ikasketa bidaia-egiterik egon ez zela jakinarazi zuen.
-
- Josu Ojinagak LHko arduradunak Covid-19ak eragindako konfinamenduak LHko etapan izandako eraginaz hitz egin zuen.
 - Horrela gauzak, 2020/2021 ikasturterako garatutako Covid-19aren inguruko kontingentzia plana aurkeztu zuen.
 - Horrez gain, ikasleren bat etxean konfinatuta egonez gero 2020/2021ean jarraituko den protokoloa aurkeztu zuen.
4. Zuzendariak GUZU proiektuaren gainean hitz egiteko hartu zuen hitza. Ikastolan bizitako prozesua laburtu eta GUZUK ekarritako ordutegi berriak gogoratu zituen eta horrekin batera ekintza desberdinetarako parte-hartze maila eta monitore kopurua aurkeztu zituen.
 5. Andrea Aiape lehendakariordeak webgune berriaren lanketaren berri eman zuen. 2018/2019ko asanbladako eskaera bat izanik, hasi genuen webgune berri bat gauzatzeko bidea. Sinpletasuna eta behar den informazio guztia eskuragarri izatea izan da helburua. Logo berriaren lanketa ere aurreikusi zen hasiera baten, baina pandemia egoerak ez zigun utzi prozesu hau nahi genuen partehartze mailarekin egiten eta aurrerago landu beharko da. Webgunearen proposamena aurkeztu zuen eta oraindik lanean gabiltzala argitu zuen, helburua datorren hilabetearen publikoki aurkeztea izango zela adieraziz.
 6. Batzordearen berritzearen puntuan, lehendakariak juntan emango ziren aldaketen berri eman zuen: 2019/2020ko ikasturte amaierarekin batera, Fontso Moreno eta Xiomara Gezuragak kargua utziko zutela jakinarazi zuen. Beste alde batetik, Itxasne Abaunza eta Maialen Elordi kooperatibistek ikastolako juntako kide izateko interesa agertu zuten.
 7. Galde-erantzunak.
 - Alexiaren inguruan galdetuta, horrenbeste baliabide eskaintzen dituen tresna honen erabilera sakondu eta sustatzen jarraituko dugula azaldu zen. Aurten Alexia bideratzen 2 langile ditugula adierazi zen eta formakuntza jasotzen zebiltzala ahalik eta emendio handiena ateratzeko. Zoritxarrez, egoera honetan egonda, eguneroko ezjakin honek asko eskatzen du eta batzuetan zaila da nahiko genukeen abiaduran mugitzea.
 - Lehendakariak, bilera aurrez aurre egitearen arrazoia estatutuaren modu telematikoan egitea jasota ez egotea dela argitu zuen.
 - Komunikazioa inoiz baino garrantzitsuagoa den une honetan, Guraso Ordezkarien paperaz aritu ginen eta beren lana goraipatu zen.
 - Digitalizazioaren inguruan galdetuta, itxialdi egoera berriak gertatzea posible zen horretan, digitalizazioa LH4ra jaisteaz aztertzen genbiltzala adierazi zen, gaia ikasmaila horretako gurasoekin aztertuko zela argituz.

Eta horrela, 19:30etarako bukatu zen batzarra.

Bertaratutako inork ez badu kontrarik adierazten, iazko batzar orokorrari dagokion akta onartuko dugu.

3. 2020. urteko balantzea eta galdu-irabaziak

Roberto Arteagabeitia zuzendariak 2020 urteko balantzea eta galdu-irabazien kontu eman du. Ikastola irabazi asmorik gabeko erakundea izanik emaitza positiborik eman ezin dugula azaldu du. Inork zehaztasun gehiago kontuen berri izan nahi izanez gero, edozein momentutan ikastolara bertaratzeko gonbitea luzatu du.

Orokorrean, sarrerak 3.644.513,54€-takoak izan dira (tartean Eusko Jaurlaritzatik Covid-19aren inguruan jasotako dirulaguntzaren berri eman du -147.347,68€ 20-21 ikasturterako- eta zer kontzeptutan banatzen diren). Gastuak, ordea,

3.645.307,39€-takoak. Horrela gauzak, 2020ko balantzea -793,85€-tan itxi zen eta positibotzat eman da zifra. Kontuak onartu dira.

2020ko kontuen eta 2019ko kontuak alderatu dira gastuen zehaztapenen arteko alderaketa nagusiak hauek izanik:

- Langileria, 100.000€ inguru gehiago izan ditugu.
- Finantzak. Amortizazioek beren garrantzia dute. Bankuekin ditugun konpromisoak betetzeaz arduratu behar gara. Inbertsio handiak egin dira eta urteetan ez dugu kuotarik igo.
- Egunerokotasunean gastu jaitsiera izan dugu egoera pandemikoagatik.
- Energiarako Infotecnia enpresak tarifa onenak bilatzen dizkigu urtero urtero.
- Liburu eta materialaren partidaz ari garenean, ez gabilta koaderno, arkatz eta bestelako materialez bakarrik ari. Gastuen zati handiena lizentzia eta liburuak suposatzen dute.

Hezkuntza sailetik inbertsioetarako deialdia egoten da 3 urtetik behin. Hortik %35 inguru ematen digute. Hurrengo inbertsio deialdirako LHko lehen etapako obrak eta su-eskailera sartzeko aukera izango genuke (300.000€ eta 100.000€ inguru, hurrenez hurren). Posible balitz, LHko 2. etapako obrei helduko genieke, beti ere, matrikulazioaren eboluzioaren arabera, kooperatibistek kuota igoerarik jasan ez dezaten obra gehigarriek ekiteagatik.

4. Estatutuen egokitzapena araudi berrira.

Lehendakariak azaldu du Kooperatiben 11/2019 lege berria 2019ko abenduaren 20an argitaratu eta 2020ko urtarrilaren 20an sartu zela indarrean, eta horren ondorioz estatutuak eguneratu behar ditugula, 2022ko urtarrilaren 20a baino lehen, izan ere, epe hori igarota, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan ez da sozietate kooperatiboan inolako agiririk inskribatuko, harik eta estatutu sozialen egokitzapena inskribatu arte.

Lege berrira egokitzeko estatutu aldaketei dagokionez, hiru mailatan sailkatu daitezke: nahitaezkoak, hautazkoak eta gomendagarriak. Horrela gauzak, gaurko Ohiko Batzar Nagusi honetan Kooperatiben Erregistroak aldaketen aldeko erabakia har dezan nahitaezkoak bakarrik helduko zaiela adierazi da, aurrerago besteak landuko direla jakinaraziz. Prozesu honetan zehar Konfekoop eta COR gestoriaren laguntza izan dugula adierazi da.

Ondoren jasotzen diren lege berriak eskatzen dituen nahitaezko estatutu aldaketen gainean eman da bozka, gure estatutuen txertaketarako ebazpena ere aurkeztuz:

- INFORMAZIO-ESKUBIDEA: BERMEAK ETA ORGANOAK. 13. artikulua.— Estatutuen gutxieneko edukia. 13.o art.
- DELITUEN PREBENTZIOA/INDARKERIA SEXISTA. 13. art.; 13.q art.
- BORONDATEZKO BAJA. 26. art.
- FALTAK – PRESKRIPZIOA. 29.2. art.; 13.h art.
- BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA. 35.2. art.
- KONTSEILARIEN KARGU-UZTEA. 43.3 art.; 13.m art.
- ARTEZKARITZA-KONTSEILUA. 44. art.; 13.m art.
- ERABAKI DEUSEZAK ETA DEUSEZTAGARRIAK. 41. art.; 52. art.
- KAPITAL SOZIALA. 60. art.
- GALERAK EGOZTEA. 73. art.
- ARTEZKARITZA-KONTSEILUA: ORDEZKARITZA OREKATUA. 47.6. art.; 32.4. art.
- DERRIGORREZKO ALDAKETA. Estatutuetan 4/1993 legeari eta haren artikuluei egiten zaizkien aipamenak aldatu eta lege berrira egokitu behar dira, hala badagokio, 1. artikuluan erreferentzia eginez.

Guztiak aho batez onartu dira.

5. 2020/2021ko txosten pedagogikoa.

Koldo Carbonell ikasketaburuak 2020/2021eko txosten pedagogikoa aurkeztu du.

- Irakasleek EHItik, Berritzegunetik eta Konfekoop-etik jasotako formakuntza ugariaren berri eman du.
- Orientazio akademikoari dagokionez, DBH4ko ikasleen datorren urterako ibilbide formatiboa aurkeztu du.
- Guraso Ordezkarien proposamenez eskola orduetan txertatu diren formakuntza saioen kontu eman du (sexualitatea, LH6 eta DBH3ko ikasleak; lehen sorospinak, DBH4ko ikasleak eta HH0-6ko irakasleak; sare sozialak, DBH 1 eta 2ko ikasleak; eta familia konfinamenduari dagokiona, gurasoei zuzenduta egiteke).
- EHiko endekalogoak aurkeztu du. Jaurilaritzak Euskal Hezkuntza lege berri bat ateratzeko asmoaren aurrean Ikastolen Elkarteko proposamena da endekalogoak. 111 ikastolek adostutako endekalogoak “bihar” eraikitzeko, 11 printzipioren baitan.

ONARRIZKO PRINTZPIOAK

1.- Unibertsala.

Euskal herritar orori hezkuntza eskubidea bermatuko diona. Bazterketarik gabea arrazoi ekonomiko, politiko edo sozialengatik, nahiz jatorriari edo sexuari lotutako edozein ezaugarriengatik.

2.- Euskara eta euskal kultura ardatz dituena.

Benetako murgiltze eredu gauzatuko duena, oraingo Hizkuntza-ereduek ezartzen dituzten desberdintasunak gaindituta. Ikasle guztiei bermatuko diona euskaraz osotasunean bizi ahal izateko maila, duten abiapuntua dutela, eta bizi diren errealitate soziolinguistikoan bizi direla.

3.- Euskal Curriculumetik eraikia.

Oso-osorik, bertatik bertara eraikitako curriculumean oinarrituko dena. Konpetentzien garapenerako ikasgai zerrenda, metodologia eta kosmobisio propioarekin. Ebaluazio sistema hezitzailea eta hobekuntzara bideratua.

4.- Euskal Herria bere osotasunean landuko duena.

Dagokion lurralde bakoitzeko errealitateak kontuan izanik, osotasun batetik abiatuko dena, errealitate guztien aniztasunari zentzu komuna emango diona. Euskal Herriaren lurralde osoak eragingo diona, eta Euskal Herriko hezkuntza-sistemetak ikastetxeen arteko lankidetzaz hitzarmenak bultzatuko dituena.

HEZKUNTZAK LANDU BEHARREKO BALOREAK

5.- Hezkidetzan oinarritua.

Pertsonen arteko berdintasuna bermatu eta sustatuko duena. Ikasleei tresnak eskainiko dizkiena beren bizitza proiektua aukeratzeko askatasunetik eta aukera-aniztasunetik, genero-baldintzatzailek gabe, besteak beste kultura, erlijio, gizarte-klase, egoera funtzional eta sexu orientazio bakoitzaren esparruetan.

6.- Laikotasunean heziko duena.

Sinesmen askatasuna bermatzeko, erlijioak, fede gisa, curriculumetik kanpora utziko dituena, ez bada jakintzaren begirada zientifiko hutsez ekiteko.

7.- Ikasleak bere egiten dituen ezaugarrietatik pentsatua.

Ikasleak, euren ikas ibilbidea amaitutakoan, ezaugarri hauek izatera bideratuko dituena: Euskaldun konprometitu eta eleantzik; beren buruekiko konfiantzadunak; lankidetzan ikaskideak; erabaki hartzaile kritikoak; ekintzaile gogoetsuak; jokabide etikodunak; sortzaileak; ikusmira zientifikodunak; orekaren zaintzaileak.

8.- Inklusiboa.

Euskal Herrira etortzen direnen jatorrizko izaera errespetatuta, euskal herritar izateko baliabideak eskainiko dizkiena, eta, aldi berean, euren ekarpenak aberastasun gisa ulertuko dituena. Jatorri askotariko ikasleak modu orekatuan eskolaratuko dituena, euren beharrak erdigunean jarrita.

HEZKUNTZAREN ANTOLAKETAZ

9.- Gobernantza demokratikotik antolatua.

Hezkuntza komunitateko kide diren guztien erantzukizun partekatutik bideratua. Ikasle, guraso nahiz langileen hezkuntza prozesuari dagozkion erabaki konunetan eta erantzukizunen banaketan oinarritua.

10.- Ikastetxei autonomia aitortuko diona.

Tokian tokiko hezkuntza komunitate bakoitzak bere proiektua eraginkortasunez garatu ahal izateko, ikastetxe bakoitzari lanean ari den errealitatean eragiteko baliabide materialak ziurtatuko dizkiona, eta gardentasunez eta autonomiaz giza baliabideak zein materialak kudeatzeko eskumena aitortuko diona.

11.- Publiko-herritar ereduak sortua.

Euskal gizartearen izaera parte-hartzaile eta kolektiboan oinarritua, publikotasun eredu berria eraikiko duena, titulartasunari baino, publiko-herritar harremanari kasu egingo diona. Irabazi asmorik gabeko herri proiektuak, gizarte ekonomian kokatuak, hezkuntzaren arloan ongizate-estatuaren oinarritzko helburuekin bat egiten dutenak, sistema publikoaren partetzat hartuko dituena.

6. COVID-19rako balorazioa.

Ikasketaburuak Covid-19 protokoloa azaldu du, besteak beste:

- Bizikidetzat taldeak eta bestelako osasun neurriak (tenperatura hartu, eskuak garbitu, aireztatzea, eta abar).
- Ikastolako sarrera-irteera mailakatuak eta 3 irakaslerekin
- LH eta DBHko ikasle guztiekin tutoreek banakako elkarrizketak burutu dituzte emozioak eta harremanen kudeaketa lantzeko.
- 2 irakasle berri goiz ordutegira kontratatatu dira eta beste zenbait irakasleri kontratatua luzatu zaie

Ondoren ikastolako intzidentzia-datuak aurkeztu dira, betiere Osakidetzako datuetan oinarrituz:

IRAKASLEAK						IKASLEAK					
POSITIBOAK EMANDAKOAK			KONFINATUTAKOAK			POSITIBOAK EMANDAKOAK			KONFINATUTAKOAK		
7			17			43			189		
HH	LH	DBH	HH	LH	DBH	HH	LH	DBH	HH	LH	DBH
2	5	0	5	8	4	23	20	0	100	87	2

7. Zuzendaritza erreleboaren prozesu aurkezpena.

Egonkortasun lantaldearen lanaren azalpena eman du lehendakariak, lantalde honek ikastolaren etorkizuneko egonkortasunean eragina duten arlo ezberdinen gainean lanketa sakon bat egitea helburu duela azalduz. Hau da, datozen

urteetarako ikastolaren egonkortasun ekonomikoa, jantokikoa eta langileriarena bermatzen lagunduko duen prozesua bideratzea, izan ere, besteak beste, aurreikuspen demografikoak eragingo duen eskenatoki berri horrek beharrezko egingo du ikastola barruko rolen eboluzioa.

Zuzendariak, bere aldetik, egonkortasun lantaldeak aurton ekin dion errelebo prozesuaren aurkezpena egin du. Prozesuaren pausoak azaldu ditu eta gaur egun arterako balorazioa egin du prozesuaren gainean, azpimarragarrienak ondorengoak izanik:

- Prozesu demokratikoa izan da.
- Sasoiz eta presaka ibili barik burutzen ari garen prozesua.
- Egungo zuzendaritza-taldearekin lotura eta jarraipena.
- Talde anitza eta orekatua.
- Erreleboa era naturalean emango da, trantsizio gidatu batekin, egungo zuzendaritzaren laguntza eta babes osoa jasoz.

Horrela, egonkortasun lantaldeak 2021/2022an funtzio-banaketan sakondu eta jarraipen-lanarekin aurrera egingo duela azaldu du.

8. Komunikazio estrategiaren berri ematea.

Komunikazio estrategiaren lanketa egiten laguntzen ari zaigun iametza-ko Ale Goikoetxeak eman du gaiaren berri.

Analisi eta aurreko pausoak azaldu ditu eta komunikazio estrategiari ekin eta komunikazioari dagokion lan-planteamendua zelan bideratu eta martxan jartzeko egin diren 2 lan-saioen berri eman du.

Ikastola barrura eta baita kanpora begira ditugun helburu komunikatiboak aurkeztu dira eta hauei zelan erantzungo zaien. Horrela, komunikazio planaren gauzatzerako lan-planteamendua eta espazioak aurkeztu ditu: egunerokoa, koordinazioa eta lantaldea.

9. Ikasleen partehartzea eta barne-araudiaren egokitzapena.

Andrea Aiape lehendakariordeak ikasleek ikastolan parte hartzeko espazioak zabaltzeko orain bi urte zabaldu genuen bidearen aurrerapausoak aurkeztu ditu. Orain arte egindako lana laburbildu ostean, Eusko Jaurlaritzaren 201/2008 Dekretuan jasotzen den ikastetxeetan biltzeko eskubideari dagokiona azaldu du eta hor jasotakoa gura nola ekarriko genukeen.

Jarraitutako prozesua azaldu ostean, araudia egoera pandemikora moldatzeko egin diren moldaketak ere azaldu ditu, proposamen hau ikastolako barne-arautegian txertatu ahal izateko. Era berean, familien baimena eta greba-baimena ereduak aurkeztu dira.

Adierazi den moduan, besteak beste, greba egiten duten ikasleak ezingo dira ikastolako esparruan ibili ordu horietan, ekintza berezirik antolatu ez bada eta araudian adostutakoa bete ezean hutsune justifikatu gabekotzat joko dira eskolara bertaratu gabekoen saioak. Horrez gain, azaldu da ikastolan ez dauden denbora tartean ikasleek egin dezaketenaren erantzukizunik ez duela ikastolak hartuko, ezta denbora tarte horretan gerta dakizkiekeen kalteez ere, familia erantzule izanez bere osotasunean.

Ikasleen greba edo eskorara ez joatearen eskubide barne-arautegian txertatzearen bozketa egin ondoren, aho batez onartu da.

10. Batzordearen berritzea.

Lehendakariak hitza hartu du batzordean emango diren aldaketen berri emateko. Urtero, batzordearen erdia berritu daiteke. Beraz, Batzordearen partaide denak, gutxienez, bi urtetarako konpromisoa hartzen du. 2020/2021eko ikasturte amaierarekin batera, kargua berrituko dute juntakide guztiek.

Dena den, beste norbaitek ere artezkaritza kontseiluko parte izan nahiko balu, atea zabalik gelditzen dira hurrengo egunetan ere ikastolara gerturatzeko. Gauzak horrela, ondoren adierazten den moduan geratuko da osatuta junta, bestelako aldaketarik egin ezean:

2020	2021
Idoia Fernandez	Leire Lagunilla
Joana Berriozabalgoitia	Andrea Aiape
Iban Alkain	Maria Aranburu
Maialen Elordi	Nerea Gutierrez
Eneko Hormaetxea	Yoli Bilbao
Itxasne Abaunza	Ainara Artetxe

11. Galderak eta erantzunak.

- Guraso-konfinamenduaren gainean maiatzaren 26an egingo den saiora parte hartzeko gonbitea luzatu du Maria Aranburu, Guraso Ordezkarien ordezkari eta juntakideak. Era berean datorren ikasturtean Guraso Ordezkari izateko gonbidapena egin die bertaratutakoen artean interesa izan dezaketenei.

Eta besterik gabe, 19:20an bukatutzat eman da batzarra.